

3. ORDENANTZA FISKALA, HIRILURREN BALIO-GEHITZEAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak Hirilurren Balio-gehitzearen gaineko Zerga eskatuko du Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko 8/89 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren portzentajeak eta karga-tasak.

2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

II. ZERGAGAIA

3. ARTIKULUA

1.- Zergaldian hirilurren balioak izandako gehikuntza da zergagaia, lur horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzen denean edo horien gaineko jabetza murrizten duen dena delako gozameneko eskubide erreala eratzen edo eskualdatzen denean.

2.- Ondorio horietarako ondoko hauek izango dira hirilurrak:

a) Planeamenduan hiri-lur eta lurzoru urbanizagarri modura sailkatuta eta sektoretan txertatuta dauden lurrak, bai eta urbanizagarri modura sailkatuta daudenak ere, baina lur horiek garatzeko erabiliko diren hirigintzako tresnak onartuko diren unetik aurrera.

Era berean, hiri ondasun higiezintzat hartuko dira ondoko hauek ere: bide zolatuak edo espaloi zintarridunak dituzten lurrak, baldin eta horiez gainera estolderia, ur-hornidura, energia elektrikoaren hornidura eta argi publikoa badute; hiri-eraikuntzak dauden lurrak.

Nekazaritzako legeetan xedatutakoaren aurka zatitzen diren lurrak ere honelakotzat hartuko dira, beti ere zatikapen horrek nekazaritzako erabilera hutsaltzen badu, eta hala ere, bere izaeran aldakuntzarik ez bada, zerga honetakoak ez diren beste ondorioetarako.

b) Hiri izaerako honako eraikuntza hauek:

- Eraikinak; direnak direla horiek eraikitzeko erabili diren elementuak; eraikinok dauden tokiak; eraiki diren lur mota eta haien erabilera, are eraiki diren moduagatik garraiagarriak direnean eta eraikita dauden lurra eraikuntzaren jabearena ez denean ere; eta eraikintzat jo daitezkeen merkataritza eta industriako instalazioak: eustarriak, tankeak eta zamaguneak

- Urbanizazio eta hobekuntza obrak, esaterako lur-berdinketak eta aterpe gabeko guneak erabiltzeko egiten direnak, horrelakotzat hartzen direla azoka legez erabiltzeko barrunbeak, zerupeko gordailutegiak; presak, ur-jauziak eta urtegiak, are hondoa ere; kiroletan jarduteko zelai edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako ondoko guneak.

III. KARGAPEKOTASUN EZA

4. ARTIKULUA

1.- Ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez landalurrekotzat jotzen diren lurren balioaren gehikuntzagaratik ez da honako zerga hau ordaintzen. Zerga hau ordainduko da, berriz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagokionez hirilurtzat jo beharrekoak diren lurren balioaren gehikuntzagaratik, alde batera utzita katastroan edo dagokion erroldan horrela jasota dauden ala ez dauden.

2.- Zerga honen ondorioetarako, hurrengoak izango dira landalurreko ondasun higiezin: aurreko artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera hirilur ez direnak.

3. - Ezkontideek ezkontza-sozietateari ondasunak edo eskubideak ekartzen dizkiotenean ez dago Zerga ordaindu beharrik, ez eta hark ordainketa gisa adjudikazioak jasotzen dituztenean eta ezkontideek ondasun komunaren ordainketa gisa elkarri eskualdatzen dizkiotenean ere.

Halaber, ezkontza deuseztu edo senar-emazteak banandu edo dibortziaz gero, horretaz emandako epaia betearazteko ezkontide batek besteari ondasun higiezinak eskualdatzen badizkio edo ezkontideek euren seme-alabei eskualdatzen badizkie, eragiketa ez dago Zergaren kargapean, dena delakoa ezkontzaren araubide ekonomikoa.

Gauza bera aplikatuko da, aurreko paragrafoetan aipatu balizkoen arabera, Izatezko Bikoteak arautzekoa den maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoarekin bat etorritik osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, adjudikazio eta eskualdaketei.

IV. SALBUESPENAK

5. ARTIKULUA

1. - Salbuespen objektiboak. Zerga honetatik aske daude ondoko egintzen ondorioz azaltzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideak eratzea eta eskualdatzea.

b) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta Euskal Ondare Kulturalari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritakoaren arabera multzo historiko-artistiko adierazitako eremu baten barruan dauden ondasunen edo kultur intereseko adierazitako ondasunen eskualdaketak, baldin eta jabeek edo eskubide errealeko titularrek frogatzen badute higiezinak artatzeko, hobetzeko edo zaharberritzeko obrak egin dituztela euren kargura 2004ko urtariletik aurrera. Idatz-zati honetan ezarritako ondorioetarako, ondoko agiri hauek aurkeztu behar dira salbuesteko eskariarekin batera:

- Zergapekoak diren ondasun eskualdatuak multzo historiko-artistikoaren barruan daudela edo kultura intereseko ondasuntzat hartu direla ziurtatzen duten agiriak.

- Obrak egiteko hirigintzako lizentzia edo obrak betearazteko agindua.

- Izapidetu den obra-lizentziaren tasari dagokion ordain-gutuna.

- Obra amaierako egiaztagiria

2.- Salbuespen subjektiboak. Halaber, balio-gehikuntzaren zerga honetatik aske daude zerga ordaindu behar dutenak ondoko pertsona edo erakundeak direnean:

a) Estatua, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Bizkaiko Lurralde Historikoa eta bertako toki erakundeak, eta Autonomia Erkidegoko eta toki erakunde horietako organismo autonomoak eta zuzenbide publikoko antzeko erakundeak.

b) Zerga aplikatu den udalerrria eta bertako toki erakunde guztiak, bai eta haietan ari diren organismo autonomoen antzeko zuzenbide publikoko erakunde guztiak ere.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren eta indarreko legeriaren arabera eraturik dauden mutualitate eta montepioen kudeaketa-erakundeak.

e) Nazioarteko hitzarmen edo itunetan zerga honen salbuespena aintzatetsi zaien pertsona edo erakundeak.

f) Administrazioaren emakida lehengoragarrien titularrak, haiei loturiko lurrei dagokienez.

g) Gurutze Gorrikoak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

h) Irabazizkoa ez diren erakundeak.

Lurren eskualdatzeak edo horien gaineko jabaria mugatzeko gozamenezko errege-eskubideen erraketa nahiz eskualdatzea denean, horiek irabazizkoa ez den erakunde batek kostu bidez egiten dituenean, zerga horretako salbuespena izateko, beharrezkoa izango da lur horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergako salbuespena aplikatzeko baldintzak betetzea.

Ezarritako salbuespena aplikatzeko, ezin bestekoa izango da irabazizkoak ez diren erakundeen otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauko 16 artikuluko 1. atalean arauturiko aukeraren erabilera Udalari jakinaraztea eta lehen aipatutako Foru Arauren bigarren Tituluan arauturiko zerga-araubide bereziari lotutako baldintzak nahiz kasuak betetzea.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

6. ARTIKULUA

1. - Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa:

a) Irabazteko xedeekin lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra eskuratzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34 eta 35. artikuluko aipatzen dituen erakundea, edota eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen duen pertsona.

b) Kostu bidez lurra eskualdatzen direnean edo, jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratzen edo eskualdatzen direnean, lurra besteganatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34 eta 35. artikuluko aipatzen dituen erakundea.

2. - Aurreko b) letran aipatzen diren kasuetan, zergaduna Espainiatik kanpo bizi den pertsona fisiko bat baldin bada, ondoko hau izango da zergadunaren ordezkoko subjektu pasiboa: lursaila eskuratu



duen edo kasuan kasuko eskubide erreala jaso duen pertsona fisikoa edo juridikoa edota Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34 eta 35. artikulua aipatzen dituen erakundea.

VI. ZERGA OINARRIA

7. ARTIKULUA

1.- Zerga honen oinarria hiri-lurren balioaren benetako gehikuntza da, sortzapenarekin batera azaltzen dena, eta gehienez hogeitun urtean metatutakoa.

Hiri-lurren balio gehitzearen gaineko zergari dagokionez, ondoren adieraziko diren sistemen bidez zehaztuko da zerga-oinarria, behintzat harik eta hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga aplikatzea dagokien ondasun higiezinaren katastroko balioak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ekainaren 30eko 9/89 Foru Arauaren arabera berrikusi arte. Zerga-oinarria zehazteko sistemak, lehentasunezko hurrenkeraren arabera:

a) Lurzoruari dagokion arauzko gutxieneko balioa ezartzeko arau teknikoak aplikatzeagatik eratorritako lurzorua benetako balioa. Lurzoruari eta eraikuntzari egotzi dakiekeen gutxieneko balioa duten bereizi gabeko erabilera kasuetan, %60ko murrizketarekin aplikatu ahal izango dira.

Zerga honen ondorioetarako interesatuak aitortu duen balioa atal honetan ezarritako arauak aplikatuz ateratzen den emaitza baino handiago bada, interesatuak adierazitakoa hartuko da zerga-oinarritzat.

Zerga hau sorrarazten den egunerako Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritako gutxieneko balio egozgarria izango da Erandioko udalerriko ondasun higiezinaren gutxieneko balio egozgarria, zerga honen ondorioetarako.

Ebaluazio prozeduraren ondoriozko administrazio egintzen aurkako berraztertze errekurtsoak tarteka daitezke edo, bestela, bidezkoa izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa tarteka daiteke zerga zuzenbideari buruzko gertaera edo gaitan oinarritzen bada

Besteren dutako ondasun edo eskubideen balioa egiaztatzean sortzen diren desadostasunak, desadostasun horiek balioei buruzkoa badira, Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean ebatzi ahal izango dira, aldebiko tasazio bidezko balorazio prozedurari jarraituz. Prozedura hori honako dekretu honek arautzen du: ekainaren 5eko 106/2001 Foru Dekretua, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Araudia onartzen duena.

Aurreko paragrafoan aipatu den tasazio bidezko balorazio prozedurara jotzen denean konturako behin behineko kitapena egingo da, subjektu pasiboak aitortutako balioa zerga-oinarritzat hartuta. Prozedura amaitzean, zerga-oinarria aldatu eta bidezko den behin betiko kitapena egingo da. Horren arabera eskatuko zaio subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa edo, hala badagokio, itzuliko.

b) Zerga hau sorrarazten den egunean, dena delako arrazoiak tarteko, lurzoruak ez badauka Gutxieneko Balio Egozgarria ezarrita, ondasun higiezinaren gaineko zergarako ezarritako katastroko balioaren arabera finkatuko da lurzorua balioa, %60ko murrizketarekin lurraren eta eraikuntzaren balioa bereizi gabe daudenean.

Zerga hau sorrarazten den egunerako Bizkaiko Foru Aldundiak ezarritakoa izango da Erandioko udalerriko ondasun higiezinaren katastroko balioa, zerga honen ondorioetarako.

c) Zerga hau sorrarazten den egunean, dena delako arrazoiak tarteko, gutxieneko balio egozgarria



zein katastroko balioa ezarri barik duten ondasunen kasuan, lurzoruaren balioa honela finkatuko da: 1989ko abenduaren 31n indarrean zeuden Lurren balio-gehitzearen gaineko zergaren balio-indizeen taulak aplikatuta, Foru Arauek ezarritako igoerekin.

2. - Sortzapen-egunean lurrek duten balioa kalkulatzeko ondoko erregela hauek erabiliko dira:

a) Lur-eskualdaketetan, lurren balioa zerga sortzen denean aurreko 1. atalean arautarikoaren arabera ondoreetarako finkatutakoa izango da.

b) Jabaria mugatzen duten ondasunen gaineko gozamen eskubide errealak eratzten edo eskualdatzen direnean, 3. idatz-zatian jasotako urteko portzentajeak, artikulua honetako aurreko letran definitu den balioaren eta eskubideek, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondoreetarako finkatuta dauden arauak ezarriz, duten balioaren arteko diferentziari aplikatu zaizkio.

c) Eraikin edo lur batean solairu bat edo gehiago eraikitzeko eskubidea eratzten edo eskualdatzen denean, edo zorupean eraikitzeko eskubidea, azalaren gaineko ondasun-eskubiderik ez eduki arren, artikulua honetako 3. idatz-zatian aipatutako urteko portzentajeak a) letran finkaturiko balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, eta balioari eskualdaketa-eskrituran finkaturiko proportzionaltasun-modulua aplikaturik sortzen den balioari edo, horren ezean, hegalduran edo zorupean eraikiko den azalera edo bolumenaren eta guztirako azalera edo bolumenaren arteko proportzioa aplikaturik sortzen denari.

d) Derrigorrezko desjabetzapenak daudenean, artikulua honetako 3. idatz-zatian bildutako urteko portzentajeak balio justuaren zati bati aplikatuko zaizkio, hain zuzen, lurren balioari dagokion zatiari, lur horren katastro-balioa txikiagoa denean izan ezik, horrelakoetan azken balio honek lehentasuna izango baitu balio justuaren gainetik.

3.- Lurrek sortzapen-unean duten balioari Ordenantza honetako eranskinean azaltzen den portzentaje-taula aplikatuko zaio.

Portzentajea zehazteko erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena.- Zergaren menpeko eragiketa bakoitzaren balio gehikuntza agerian gertatu den urte kopurua barruan hartzen dituen aldirako ezarritako urteko portzentajearen arabera zehaztuko da.

Bigarrena.- Sortzapen-unean lurra duen balioaren gainean aplikatu beharreko portzentajea, kasu jakin bakoitzari aplikatu ahal zaion urteko portzentajea eta balio gehikuntza agerian jarri izan deneko urte kopuruaz biderkatzetik emaitza izango da.

Hirugarrena.- Lehenengo arauari jarraiki eragiketa zehatzei aplikatu ahal zaien urteko portzentajea zehazteko, eta orobat, bigarren arauari jarraiki urteko portzentaje hori zenbat urtez biderkatu behar den finkatzeko, balio gehikuntza izan den denboraldiko urte osoak zenbatuko dira soilik; beraz, ez dira kontuan izango urte-zatiak.

VII. ZERGA KUOTA

8. ARTIKULUA

Zergaren kuota kalkulatzeko, zerga-oinarriari Eranskinean adierazitako karga-tasa aplikatuko zaio.

VIII. HOBARIAK

9. ARTIKULUA

Zergaren kuota osoaren % 100eko hobaria ezarriko da, heriotza dela bide, ondorengoentzat edo adoptatuentzat, ezkontidearentzat edo izatezko bikoteentzat –maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eraturakoak badira-, eta aurreko ahaideentzat zein adoptatzaileentzat irabazteko asmoarekin egiten diren lur-eskualdaketetan eta jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzen edo eratzen direnean.

IX. ZERGAREN SORTZAPENA

10. ARTIKULUA

1.- Data hauetan sortaraziko da zerga:

a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostu bidez zein dohainik, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, sortzapena eskualdaketa egunean gertatuko da.

b) Jabaria mugatzen duen eskubide errealean bat eratzen edo eskualdatzen denean, sortzapena eraketa edo eskualdaketa egunean gertatuko da.

Arestian adierazi denaren ondoretarako, hurrengo hau izango da eskualdatze eguna:

a) Bizien arteko egintzetan edo kontratuetan, agiri publikoa ematen den eguna, eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo lanbidearen zioz funtzionario publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotzaren ziozko eskualdaketetan, sortzailearen heriotza eguna.

2.- Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurren gaineko gozamen eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua baliogabeturik, hutsaldurik edo deuseztaturik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak eskubidea izango du aurretik ordaindutako zergaren itzulketa jasotzeko, beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik lau urte igaro baino lehen eskatzen bada. Interesatuek elkarri Kode Zibilaren 1295. artikulua aipatutako itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko ondoreak daudela ulertuko da. Hutsalketa edo deuseztapena zergapeko subjektu pasiboaren betebeharrak ez betetzearen ondorioz izan dela deklaritzen bada, ez da inolako itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

3.- Alde kontratatzaileek elkarren arteko adostasunez kontratua ondorerik gabe uzten badute, ez da bidezkoa izango ordaindutako zerga itzultzea, eta zergak ordaindu beharreko egintza berritatzat hartuko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze ekitaldian lortutako abenikoa eta bai eskariari amore emate hutsa.

4.- Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko harik eta baldintza betetzen den arte^{Et}

5.- Alkar-poderosoan edo testamentu-ahalean bideratutako jarauspenetan, ahala erabiltzen denean edo iraungitzeko karietariko bat gertatzen denean sortuko da zerga.

Alkar-poderosoan edo testamentu-ahalean norbaiti zerga honen pean dauden jarauspeneko ondasunen gozamina edukitzeko eskubidea ematen bazaio, ahala erabiltzen ez den artean gozamenaren likidazio bi egingo dira: bata behin-behinekoa, oinordetza hastean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko arauen pean; eta, bestea, behin betikoa, alkar-poderosoan edo testamentu-ahala erabiltzen denean, aldi baterako gozamenaren arauen pean, kausatzailearen heriotzatik igarotako denboraren arabera. Behin-behineko likidazioagatik ordainduko dena konturako sarreratzat konputatuko da eta diferentzia gozamenaren itzuliko zaio bidezkoa bada. Aldi baterako gozamenaren ziozko behin betiko likidazioa eta alkar-poderosoan edo testamentu-ahala erabiltzeagatik edo berau iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunse direnen likidazioa aldi berean egingo dira.

X. ZERGA KUDEATZEA

11. ARTIKULUA

Subjektu pasiboek udal administrazioari aurkeztu beharko diote zergagatik dagokien aitorpena, administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera egina. Aitorpenean zerga-elementuak eta dagokion likidazioa egiteko behar-beharrezko diren datuak bilduko dira.

12. ARTIKULUA

Honako hauek dira aitorpena aurkezteko epeak; ezarritako epeak zergaren sortzapen egunetik aurrera zenbatuko dira:

- a) Bizien arteko egintzei buruzko aitorpenak, 30 asteguneko epean.
- b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea urtebetekoa izango da.

13. ARTIKULUA

1.- Aitorpenarekin batera, zergapeko egintza edo kontratua agerrarazteko egindako agiria aurkeztuko da, behar bezala egiaztatuta.

2.- Eskatzen diren salbuespenak edo hobariak, halaber, agiriz ziurtatu beharko dira.

14. ARTIKULUA

Udal administrazioak eskubidea du pertsona interesatuei agindeia egiteko eta hogeita hamar eguneko epearen barruan, zergaren likidazioari ekiteko bidezkotzat jo ditzakeen dokumentu guztiak eskatzeko. Epe hori beste hamabost egunez luza daiteke interesdunak hala eskatzen badu. Emandako epe horren barruan egindako agindeiari erantzuten ez dietenek zerga-arauak hausteagatik tributu-zehapenak izango dituzte, baldin eta adierazi diren agiri horiek aitorpena egiaztatze beharrezkoak badira. Adierazi diren agiri horiek interesatuak bere onurarako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatze bitarteko hutsak balira, agindeiari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontutan hartu barik likidazioa egitea ekarriko du.

15. ARTIKULUA

13 artikuluan xedatu dena gorabehera, jarraian adieraziko direnek ere udal administrazioari jakinarazi egin beharko diote zergagaita gauzatu izana eta, horretarako, subjektu pasiboari ezarritako epe bera izango dute:

a) Ordenantza Fiskal honen 7.1 artikuluko a) letran adierazitako balizkoak biziaren arteko negozio juridikoen ondorioz gertatzen direnean, dohaintzagilea edo kasuan kasuko eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duena.

b) Aipatu 7.1 artikuluko b) ataleko kasuetan, eskuratzaileria edo ondasun-eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

16. ARTIKULUA

Era berean, notarioek ere betebeharra dute baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua bakoitzak bere udalari helarazteko. Hori dela eta, urteko hiruhilabete bakoitzeko lehen hamabostaldian, aurreko hiru hilabetekoan baimendutako agirien zerrenda igorri behar diote udalari, udalerrian zergagai diren egintza edo negozio juridikoak azalduz, hilburuko egintzak izan ezik. Halaber, sinadurak aintzatezteko edo legezatzeko aurkeztu dizkieten egitate, egintza edo negozio juridikoei buruzko agiri pribatuen zerrenda igorri behar dute udalera epe beraren barruan. Artikulu honetan ezarritakoa gorabehera, Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrean lankidetzarako ezarri den eginbehar orokorra bete behar da.

17. ARTIKULUA

1.- Udal administrazioak aitortu ez diren zerga-oinarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, hamahirugarren artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei agindeia egingo die aipatutako aitortpena egin dezaten; horrez gain, zerga arauak hausteak dakarren erantzukizuna eta, horrela balitz, dagozkien zehapenak ere eska ditzake udalak.

2.- Udal administrazioak aurreikusitako agindeiak bideratuta eta interesatuek dagokien aitortpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedienteak tramitatuko du udalak berak dituen datuekin dagokion likidazioa eginez, ordaintzeko epeak jakinarazi eta bidezko diren errekurtsioen adierazpena azalduz, tributu-urratzeak eta, hala balitz, dagozkien zehapenak gorabehera.

XI. XEDAPEN GEHIGARRIA

10.1 artikuluan xedatu denaren eraginetarako, eta Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga onetsi zuen Foru Arauak indarrean dirauen bitartean, hurrengo arau hauek bete beharko dira:

1.- a) Aldi baterako gozamenaren balioa, ondasunen balioaren proportzioan egingo da, urtebeteko epealdiko ehuneko bira, baina ehuneko 70a gainditu gabe.

b) Biziarren gozamenetan, balioa ondasunen balio osoaren %70ekoa dela iritziko da gozamenariak 20 urte baino gutxiago dituenentzat, eta hori gutxituz joango da, hortik gorako urte bakoitzeko ehuneko bateko proportzioan, balio osoaren ehuneko hamarreko mugarekin.

c) Pertsona juridiko baten alde eratutako gozamina, 30 urtetik gorako eperako edo denbora mugatu gabe egongo balitz, ebazpen-baldintzapeko jabetza osoko besteganatzetzat hartuko da

2.- Jabetza soileko eskubidearen balioa, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren desberdintasunean konputatuko da. Era berean, aldi baterako diren biziarteko gozamenetan jabetza soila neurtzeko, aurreko bat zenbakiko arauetatik balio gutxien ematen diona aplikatuko da.

3.- Erabilera eta bizitoki eskubide errealen balioa ezartzeko, aldi baterako gozamen edo biziartekoen gozamenaren kasuen arabera, balorazioari dagozkion arauak, horiek ezarriak izan zireneko ondasunen balioaren ehuneko 75ari aplikatuko zaizkio.

4. Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Zergaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

XII. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2005eko urriaren 25ean izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2006ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

ERANSKINA

I.- PORTZENTAJEEN TAULA

EPEA

- A) 1 - 5 urte
- B) 10 urte arte
- C) 15 urte arte
- D) 20 urte arte

URTEKO PORTZENTAJEA

- % 3,7
- % 3,2
- % 3,0
- % 2,9

II.- TARIFA

Honela ateratako zerga-oinarria:

KARGA-TASA

- Gutxieneko balio egozgarria % 4
- Katastroko balioa
Balio-indizeen taulak % 30